



Irati Agirre
Aixerrota BHI, 13-14

AURKIBIDEA

Iñaki Irasizabal 2

Sarrera 2

Igelak benetan hiltzen dira

• Kokapena 3

• Gaia..... 4

• Argumentua..... 4

• Istorioa 4

• Egituraketa..... 5

• Pertsonaiak..... 5

• Baliabideak..... 6

• Iritzi orokorra 7

Bibliografia eta webgrafia 8

Iñaki Irasizabal

Iñaki Irasizabal Izagirre 1969an jaio zen Durangon. Lanbide heziketa eta Soziologia eta Kazetaritza ikasketak hasi zituen baina ez zuen bakar bat ere bukatu. Bere lanen artean nabarmentzen den generoa nobela da.

Irasizabalek argitaratutako lehenengo eleberria *Borrokaren baitan* izenekoak izan zen (2002 urtean). Horrez gain, beste zazpi obra kaleratu ditu, hala nola, *Mendaroko txokolatea* edo 2013an argitaratu berri duen Bizkartzainaren lehentasunak. Bestalde, narrazioa ere jorratu du *Ezin joan* liburuaren eskutik. Gaur egun Zornotzan bizi da eta industrian egiten du lan.



Sarrera

Igelak benetan hiltzen dira Iñaki Irasizabalek 2011.urtean kaleratutako eleberria da. Kostaldeko herri txiki batean kokatuta dagoen misteriozko eleberri honen bidez, egunero gertatzen diren izugarrikerietara ohitu izana agerian uzten du Irasizabalek, hala nola, hilketak edo jipoiak. Ildo horretatik jarraituz, gauza jakina da, Sarrionandiaren ipuinean bezala, “igelak benetan hiltzen direla” (eleberriko 110. orrialdean adierazita), hau da, ezbeharrak benetan gertatzen direla. Hala ere, ezinezkoa dirudi biktima gu geu izatea eta horri, hain zuzen ere, egiten dio erreferentzia eleberriak. Horrela, *Igelak benetan hiltzen dira* eleberriak nobela beltzaren ezaugarri ugari mantendu dituen arren (haien artean krimen bate gotea eta azken momentura arte amaiera airean uztea adibidez), Irasizabalek garrantzi handiagoa eman die pertsonaien arteko tirabirei denbora gutxian irakurtzen den kontakizun bat idatziz.

Igelak benetan hiltzen dira

Kokapena

Obran ez dago leku-denborazko kokapen zehatzik baina badira zenbait ezaugarri garaiari eta tokiari buruzko informazioa ematen digutenak. Lekuari dagokionez, hasiera batean narratzailea Bilbon bizi zela adierazten da eta lankide baten sorterrira bizitzera joan zela gero, kostaldeko herri txiki batera. Bestalde, herri horrek hondartza izateaz gain mendiak ere baditu. Informazio horren bidez ondoriozta daiteke herri txiki hori Kantauri Itsasoko kostaldean kokatuta dagoela, mendiak itsasotik hurbil dauden eskualdean. Zehatzago izateko, hasiera batean istorioa Bilbon kokatuta dagoela kontuan hartuta, Bizkaiko kostaldeko herri txiki bat dela esan daiteke. Garaiari dagokionez, haren berri ematen digun gertaera zehatzik aipatzen ez denez, istorioa XIX.mendean koka genezake; izan ere, pertsonaien bizimodua aztertuz gero, gaur egunekoaren oso antzekoa dela baieztatu dezakegu. Hasteko, eleberriko pertsonaia bat, Jasone, erlijio irakaslea da. Istorioko gizartean erlijioak duen garrantzia eta eragina gaur egun duenarekin konparatuz, bietan berdina dela argi ikus daiteke: oso eskasa. Bestetik, gizaharremanak ere aztarna garrantzitsua dira denborazko kokapena ikertzerako orduan. Horrela, istorioko pertsonaia den Aroa Lopezen familia eredu guztiz ohikoa iruditzen zaigu gaur eguneko irakurleoi. Aroaren gurasoak banandurik daude eta bera eta bere ahizpa Izaro, amarekin eta bere senar berriarekin bizi dira orain. Bestalde, Aroa eta Izaroren aita herri berean bizi da eta nahi dutenean ikusten dute.

Pertsonaien aldetik, protagonista narratzailea bera da; izan ere, nahiz eta eleberriko ildo nagusia hirugarren pertsonan kontatu, gertakizun horiek berak aldi berean bizitakoekin osatzen ditu, harengan izan zuten eragina azalduz. Bestalde, Martin, Aroa Lopez-en aita, ere oso pertsonaia garrantzitsua da istorioa ulertzeko funtsezkoak diren ekintzetan parte hartzen duelako. Harekin batera, Aroaren familia guztiak hartzen du parte eleberrian: Ane (ama), Izaro (ahizpa) eta Tomas (Aneren senarra); eta horiek izango dira herrian gertatutako ezbeharragatik gehien sufrituko dutenak eta aldaketa nabaria jasango du haien bizitzak. Horiez gain, “herriko gaizkile ofizialak” ere aipatu beharra dago, Tuercas, West eta Simon, horiek izango baitira Aroaren desagertzearen susmagarri nagusiak. Azkenik, badira beste hainbat pertsonaia istorioan parte hartzen dutenak, neurri txikiago batean bada ere: Jasone (narratzailearen neskalaguna), Andoni (Izaroren mutilaguna), Fredi (eliza berezi bateko apaiza), Ariza (desagertzearen susmagarria)...

Gaia

Aroa Lopezen desagertzea: gertakari harrigarri horrek herriko biztanleengan izandako eragina.

Argumentua

Narratzailea kostaldeko herri txiki batera joan da bizitzera. Hainbat hilabete han eman ostean herritarrak asaldatzen dituen ezbeharra gertatzen da: Aroa Lopez, hamabi urteko neskatua desagertzen da. Nahiz eta herri osoa miatu eta susmagarri posible guztiak galdekatu ez da Aroaren arrastorik agertzen. Honek hasiera bateko herritarren arteko batasunarekin bukatuko du eta mesfidantza izango da nagusi. Poliziak arrasto ezarekin batera kasua baztertzean Martin, herriko udaltzaina eta Aroaren aita denak, bere kasa ikertzeari ekingo dio bere bizitzak zentzua izan dezan, susmagarriengandik informazioa lortzeko teknika desegokiak erabiliz. Horrek ondorio kaltegarriak ekarriko ditu bere familiarentzat eta azkenik, liskar baten ondorioz, hil egingo da. Horren ostean poliziak informazio berria lortuko du susmagarri bati buruz baina hil egingo da galdekatu baino lehen. Horrela, beraz, Aroaren kasua errudunik gabe geratuko da eta herriko bizimodua guztiz aldatuta.

Istoria

Istoria kontatzen duen narratzailea 34 urteko Bilboko institutu bateko matematika irakaslea da. Bere bizitzak jasandako aldaketa bortitz batek bizimoduz aldatzera bultzatzen du. Horretarako, bere lankidea den erlijio irakasleak bere sorterrian dagoen etxebizitza bat gomendatzen dio eta bertara bizitzera joatea erabakitzen du, kostaldeko herri txiki batera.

Bederatzi hilabete igaro ostean, herriko giro lasaia aldatuko duen ezbeharra gertatzen da: Aroa Lopez, hamabi urteko neskatua desagertzen da. Herri osoa haren bila ibili ostean, aurkitzen duten arrasto bakarra Aroaren bizikleta da eta honek herritarrak asaldatzen ditu; izan ere, hain herri txikian guztiek ezagutzen dute elkar eta herritarrek baino ez dute Aroaren bizikleta aurkitu zuten lekura joateko bidearen berri. Poliziak, susmagarriak (“herriko gaizkile ofizialak” diren Tuercas eta West eta pederastiarekin erlazionatua izan zen Ariza izeneko gizona) galdekatu ondoren, kasua alde batera utziko du. Hori ikusita, Martin udaltzainak, aldi berean Aroaren aita denak, bere kasa

ikertzeari ekiten dio, susmagarriak berriro galdekatuz, oraingoan zuzenak ez diren teknikak erabiliz. Horrek ondorio kaltegarriak ekarriko ditu bere inguruko jendearentzat baina Martinek beharrezkoa du ikertzen jarraitzea bere bizitzak zentzua izan dezan. Azkenik, Arizarekin izandako istilu baten ondorioz hil egingo da.

Horren ostean, poliziak iraganeko susmagarri bat, Simon, berriro erlazionatuko du Aroaren kasuarekin baina liskar baten ostean hil egingo da. Beraz, Aroaren desagerpenaren kasua errudunik gabe geratuko da eta horrek herritarren arteko konfidantza galtzea ekarriko du.

Egituraketa

Eleberriak 113 orrialde ditu guztira, zortzi kapitulutan banatuta, epilogoaz gainera. Bestalde, istorioa era linealean dago kontatuta. Nahiz eta narratzaileak Aroaren desagerpenaren istorioaz gain bere bizitza pertsonaleko gertakizunak kontatu, oso ondo erlazionatuta daude, inolako saltorik gabe. Izan ere, narratzaileak berak esan bezala “garai zehatz bateko kronika” da eleberria. Horrek guztiak (orrialde kopuru txikia, kapitulutan banatuta egotea, gertakari desberdinak txertatuta egotea) erritmo azkarra ematen dio eleberriari eta irakurtzeko erraza eta atsegina bihurtzen du, irakurlearen arreta etengabe mantenduz.

Pertsonaiak

Nire ustez, *Igelak benetan hiltzen dira* eleberriko pertsonaia nagusiak narratzailea bera eta Martin dira. Hala ere, istorioa Aroa Lopezen desagertzean oinarrituta dagoenez, haren deskribapena egitea behar-beharrezkoa da.

➤ Narratzailea

Narratzailea pertsonaiarik funtsezkoena da istorioan; izan ere, bera herrian egon izan ez balitz, ezinezkoa litzateke gertatutakoaren analisi objektiboa eta zehatza egitea.

Batetik, narratzaileak objektibotasunez azaldu du jazotakoa herri horretan kanpotarra delako eta beraz, benetan gertatutakoaren berri eman dezakeelako aurreiritzien ondorioz ezagunak susmagarrien zerrendatik baztertu gabe. Bestetik, zehaztasuna ere jarri du istorioan, herritarrekin izandako harremanei esker lortutako informazioa azaltzearekin batera, bere bikotekidearekin, Jasonerekin, adibidez.

➤ MARTIN

Martin deragertutako neskaren aita da, Aroa Lopezen aita. Aldi berean, herriko udaltzaina da. Bi ezaugarri horien pertsonaia nagusienetakoa bihurtzen dute Martin. Izan ere, Aroaren aita izateak tristura, gorrotoa eta mendekurako grina bezalako sentimenduak sorrarazten ditu harengan. Horrez gain, udaltzaina denez, bere alabaren kasuari buruzko informazioa lortzeko erraztasun handiagoa du. Bi egitate horien ondorioz Martinek bere bizitza Aroaren desagertzearen ikerketari eskainiko dio. Hala ere, horrek ondorio lazgarriak ekarriko ditu bere senideentzat, erabilitako tekniken zuzentasun ezari buruzko txutxu-mutxuak zabalduko direlako. Dena dela, Martinek bere erabakiari eutsiko dio, behin alaba galduta, bere bizitzari zentzua emango dion gauza bakarra delako.

➤ AROA LOPEZ

Aroa Lopezen desagertzea da eleberriaren ildo nagusia. Nahiz eta Aroa istorioan gainerako pertsonaiekin harremanetan ez agertu, funtsezko pertsonaia da, istorioaren garapena ahalbidetzen duelako. Istorioaren hasieran bere deskribapena egiten den arren, ez da berriro bere ezaugarri fisiko zein izaeraren inguruan ezer azaltzen.

Aroa Lopez hamabi urteko neskatoa zen. Hondartzatik bostehun metrora zegoen txalet zuriurdin batean bizi zen, sei txaleten ilaran hirugarrena edo laugarrena, nondik kontzaten hasten zinen. Izaro hamalau urteko bere ahizpa, Ane bere ama eta Tomas, bere amaren senarrarekin bizi zen. Mehea eta kirolaria zen, ikasle ona, alaia eta bizkorra. Itsasoan bainatzea mareagora zegoenean, Bollywood-eko dantzak dantzatzea eta Michael Enderen liburuak irakurtzea zuen gustoko. (7)

Hala ere, Aroaren desagertzea herriko herritar guztiengan, batez ere bere familiakoengan, horrelako ezbehar batek duen eragina aztertzeko balio du. Nola edo hala, Aroaren desagertzea gaur eguneko gizartean gertatzen ari denaren adibide bat baino ez da. Aurretik esan bezala, egunero gertatzen diren izugarrikerietara ohituta gaude eta guregandik oso hurbil gertatzean soilik konturatzen gara egoeraren larritasunaz.

Baliabideak

Espresaerei dagokienez ugariak dira Irasizabalek *Igelak benetan hiltzen dira* eleberrian erabilitakoak, baina narrazioa eta elkarrizketa gainerakoan artean nabarmentzen dira; bai narratzaileak bere bizitzako gertakizunak kontatzean zein Aroaren desagerpena azaltzean. Hala ere elkarrizketaren moldea desberdina da.

Narratzaileak gertakizun pertsonalak kontatzerako orduan elkarrizketa erabiltzean, zuka egiten du. Aroaren desagerpena azaltzean elkarrizketa erabiltzean ordea, Martin da hizlarietako bat kasu gehienetan eta tentsio-egoerak izaten dira: bai susmagarriekin bai poliziarekin hitz egitean. Tentsio hori adierazteko hika erabiltzen du Irasizabalek.

Bestalde, kontatzeko estiloa ez da oso landua orokorrean. Hala ere, desberdintasuna nabaria da: Martin eta susmagarrien jokabidea adierazteko erabilitako estiloa gainerako pertsonai guztiekin konparatuz desberdina da, nolabait esateko erasotzaileagoa.

Azkenik, narratzaile bakarra dago baina istoriaren ikuspegiaren arabera era desberdinean kontatzen du istorioa. Narratzaileak berebizitzako gorabehera pertsonalak azaltzean lehenengo pertsonan egiten du eta Aroaren desagerpena kontatzean berriz hirugarren pertsonan. Horregatik bi istorio desberdin direla ematen du hasiera batean, oso era desberdinean kontatuta daudelako.

Iritzia

Igelak benetan hiltzen dira eleberria oso erraza izan da irakurtzea baina ez soilik 113 orrialde baino ez zituelako. Hasteko, Irasizabalek irakurlearen arreta eleberrian mantenaerazten dakiela esan beharra dago. Horretarako hainbat baliabide erabili ditu: batetik, istorio bakarra bi ikuspuntu desberdinetatik kontatzea, gertakariak etengabeko aldaketan egoteko; bestetik, irakurlearen interesa mantentzeko beharrezkoa den informazioa soilik eman du Aroaren desagerpenaren kasuari buruz, misterioari amaierara arte eusteko.

Hala ere, eleberriari emandako amaiera ez zait batere egokia iruditu; izan ere, eleberri osoa irakurri ostean irakurleak nahi duen gauza bakarra Aroa Lopez desagertzean gertatutakoa jakitea baino ez da: nor izan zen erruduna, jipoitu, bortxatu edo hil zuten, oraindik bizirik dagoen... Nire ustez eta istorioan ematen diren datuen arabera hiltzailea Simon da. Susmagarrien

zerrenda aztertuz gero lau dira garrantzitsuenak: Tuercas, West, Ariza eta Simon. Ez Tuercasek ezta Westek ere ezin izan zuten egin; izan ere, ikaratuegi zeuden Simonek zerbait egin ezean poliziarekin hitz egingo zuela esandakoan. Haien bizitzako desio bakarra lasai bizitzea da, lagunen arteko konpainiaz eta drogas gozatuz, ez dute inolako zerikusirik Aroa Lopezekin. Arizak bere aldetik ere, Aroa Lopez desagerraraztearekin bere bizitza eta bere senideena gehiago hondatzea baino ez luke lortuko. Pederastiaren arazoaren ostean bere desio bakarra ezezaguna izatea da eta beste delitu bat leporatuz gero ez luke inondik inora ere lortuko. Azkenik Simon misterio bat da; izan ere galdekatu baino lehen hil egin zuten. Hala ere, susmagarrien artean Aroarekin gehien erlazionatuta zegoena zen, udalekuetako monitorea izateagatik. Beraz, nire ustez, Simon da erruduna.

Bibliografia-webgrafia

- *Igelak benetan hiltzen dira*. Iñaki Irasizabal. Elkar
- <http://www.idazleak.org/euskara/idazleak/inaki-irasizabal-izagirre>
- <http://zubitegia.armiarma.com/>
- <http://www.elkar.com/es>